Emakumeen aurkako arrisku, indarkeria eta diskriminazio egoerak detektatzeko gakoak LTBI+

Esku-hartze seguru, inklusibo eta diskriminaziorik gabeko baterako gakoak.

Eremu estrategikoak

Soziala · Lanekoa · Sanitarioa
Hezitzailea · Juridikoa

www.felgtbi.org

FELGTBI+
Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans, Bisexuales, Intersexuales y más

Funtsezko ideiak

- Zaurgarritasuna estigmatik, diskriminaziotik, oztopo instituzionaletatik eta egiturazko desberdintasunetik dator.
- Esku-hartzeak begirada intersekzionala izan behar du abiapuntu.
- Ondo jarduteak prebentziorako irizpideak izatea du helburu: nortasuna errespetatzea, konfidentzialtasuna bermatzea, bigarren biktimizazioa ekiditzea eta baliabideen kudeaketa kalteak murriztuko dute eta babesa hobetuko dute.

◇ LTBI+ emakumeen aurkako indarkeria ulertzea

Ez dira gertakari isolatuak, patriarkatuak, zisheteronormatibitateak eta azenonormatibitateak zeharkatzen duten gizarte-sisteman sartzen dira. **Ez da arlo fisikora mugatzen**: ikusezin bihurtzea, ukatzea, patologizazioa, kontrola eta erakundeen bazterketa biltzen ditu. Fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, digitala, sinbolikoa edo instituzionala izan daiteke.

Genero barneko indarkeria: genero bereko pertsonen arteko harreman afektibo edo sexualetan ematen den indarkeria da. Besteak beste: kontrola, isolamendua, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa, indarkeria digitala eta outing behartua. Ikusezina den indarkeria da eta horregatik ez daude baliabiderik salatzeko edo horren inguruan esku hartzeko.

Gorroto-delitua LTBIfobiagatik: arau-hauste penala da, LTBI+ kolektiboko benetako edo hautemandako kide izateari buruzko aurreiritziengatik.

Eskubide eta betebehar profesionalen esparrua

Babesa giza eskubideen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren esparrutik dator.

Eskubideen titular osoak dira, eta arreta eta baliabideak diskriminaziorik gabe jaso behar dituzte.

Izena, izenordainak, identitatea eta gorputzaren autodeterminazioa errespetatu behar dira.

Genero barneko indarkeria ez dago 1/2004 Lege Organikoan jasota, nahiz eta babeserako beste bide batzuk dituen (Zigor Kodea, prozedura-legeria eta Biktimaren Estatutua).

Sektore guztiek indarkeria eta diskriminazioa prebenitu, detektatu eta horien aurrean jardun behar dute.

4/2023 Legea: prestakuntza, protokolo inklusiboak, arreta integrala eta ingurune seguruak indartzea du xede.

◇ Arrisku-faktoreak eta irisgarritasuneko barrerak

Arrisku-faktoreak: familiaren edo gizartearen gutxiespena; outinga; laguntza-sarerik eza; prekarietatea eta mendekotasun ekonomikoa edo afektiboa; osasun mentalaren narriadura; indarkeria edo trauma izandako bizipenak eta indarkeria instituzionala.

Ohiko irisgarritasun barrerak: binarismoa formularioetan; hizkuntza ez-inklusiboa; profesionalek formakuntza ez izatea eta protokolo inklusiborik ez ezartea; haien testigantza ez sinestearen beldurra; patologizazioa; egokitu gabeko baliabideak; koordinazio urria; espazio seguruen eta erreferenteen falta; sexu- edo amodiozko erakarpena esperientzia unibertsal gisa aurreupesten izatea.

Barrerak sektoreka

Soziala: baliabideen arteko lotura eskasa, arreta espezializatu gutxi, administrazioak jarritako eragozpenak eta deribazio ez seguruak.

Lanekoa: orientazioa edo identitatea ezkutatu bere burua babesteko, errepresaliak izateko arriskua, diskriminazioa hautaketan eta lan- sustapenean, eta jarrera LGTBIfobikoak.

Osasunean: ikuspegi zisheteronormatiboa eta arretaren genero- alborapenak.

Hezkuntza: ikusezintasuna, instituzioen aintzatespen eza, curriculum ez-inklusiboak eta erreferenteen falta.

Juridikoa: mesfidantza, bigarren biktimizazioaren beldur, prozedura barrerak eta genero barruko indarkeria edo gorroto delituak aitortzeko zailtasuna.

Zaurgarritasun espezifikoak: emakume lesbianak

- Eredu zisheteropatriarkaletik kanpo dauden harremanen ikusezintasuna eta aintzatespen falta.
- Aitortu gabeko, minimizatutako edo baliabide espezifikorik gabeko genero barruko indarkeria.
- Heterosexualitate-presuntzioa arreta profesionalean.
- "Ez dute arrisku-praktikarik" aurreiritzia, eta horrek informazio eta prebentzio gutxiago izatea du ondorio.
- Isolatzeko, identitatea ukatzeko eta diskriminazioa jasateko arriskua.

Zaurgarritasun espezifikoak: emakume bisexualak

- Bisexualitatearen ikusezintasuna.
- Indarkeria espezifikoak identifikatzeko zailtasunak.
- Gizonekin zein emakumeekin dituzten harremanetan indarkeriarekiko esposizioa.
- Hipersexualizazioa, fetitxizazioa eta "erabakigabetasun" edo "promiskuitate" estereotipoak.
- LGTBI+ ingurunean diskriminazioa jasatea, gizonekin harremanak dituztenean.

Zaurgarritasun espezifikoak: trans emakumeak

- Indarkeriarekiko eta gorroto-delituekiko esposizio handiagoa.
- Pertsonak berak aukeratutako izena eta genero-identitatea ez aitortzea.
- Patologizazioa eta gorputzari buruzko intimitatean behar ez bezala sartzea.
- Hezkuntza- eta lan-bazterketa goiztiarra, horren ondorioz prekarietate ekonomiko handiagoa dute.
- Sexu-indarkeria eta indarkeria psikologikoa, fetitxizazioa eta tratu iraingarria.

Laguntza sareen eta erreferente instituzionalen eza.

Zaurgarritasun espezifikoak: emakume intersexualak

- Baimendu gabeko ebakuntza kirurgikoak egiten dituzte, gorputzak "normalizatzeko".
- Patologizazioa eta ikusezintasuna osasun- eta administrazio-inguruneetan.
- Ikuspegi binarioak ez dute gorputz aniztasuna onesten.

Zaurgarritasun espezifikoak: emakume asexuak eta arromantikoak

- Ikusezintasuna, zalantzan jartzea edo sexu- eta/edo amodiozko harremanak izateko presioa.

◇ Detekzio goiztiarra

Alerta seinaleak sotilak izan daitezke eta hauek ezkutatzeko estrategiak egotea gerta daiteke.

Honela adieraz daitezke: jokabide- edo itxura-aldaketak; identitatea ezkutatzea; isolamendua; etengabe erne egotea; antsietatea; tristura; kontakizun etenak edo kontraesankorrak; zerbitzuak edo espazioak saihestea; sexu- edo amodiozko harremanak izateko presioa; substantzien kontsumo problematikoa; ideia suizidak edo jokabide autolitikoak.

Gorroto-delituaren balizko adierazleak: irainak, mehatxuak edo erasoak LTBI+ kolektiboko kide izatearekin lotzen dituzten ekintzak.

Adierazleak sektorearen arabera

Soziala: etxebizitza edo laguntza ekonomikoaren beharra izatea, dituen sareak galtzea/apurtzea eta bere burua isolatzea.

Lanekoa: ezkutatze sistematikoa, jarduerak saihestea, nagusien aurrean antsietatea izatea edo geldialdi profesionala behar izatea.

Osasunean: behin eta berriz lesioak izatea, ezinegon iraunkorra izatea, mediku azterketak saihestea edo bikotekideaz edo bere inguruari buruz hitz egiteko zailtasunak izatea.

Hezkuntzakoa: absentismoa, errendimendu txikia, jazarpena, uzkurtasuna, jokabide-aldaketak edo beldurra espazio jakin batzuekiko.

Juridikoa: salatzeko beldur handia izatea, mehatxuak minimizatzea edo lotsaz edo beldurrez baldintzatutako testigantza ematea.

***** Premiazko alerta:*** *ideia suizida aktiboa izatea, substantzien kontsumo problematikoa edo indarkeria fisiko errepikatua.*

◇ Nola jardun behar dugu

Jarduteko printzipioak:

- Arriskuaren ebaluazioa eta berehalako babesa.
- Laguntza emozionala eta baliabide espezializatuetara bideratzea.
- Zerbitzuen eta sareko lanaren arteko koordinazioa.
- Konfidentzialtasuna eta espazio seguruak sortzea.
- Eskubideei, baliabideei eta jarduteko bideei buruzko informazioa.

Jarduketa sektorearen arabera

Soziala: arriskua baloratzea, premiazko baliabideak aktibatzea eta banakako jarraipena diseinatzea.

Lanekoa: barne-protokoloak aktibatzea, gertaerak dokumentatzea, beharrezko neurriak hartzea eta errepresaliak saihestea.

Osasun arloan: balorazio kliniko integrala, indarkeria seinaleak dokumentatzea eta deribazio espezializatua.

Hezkuntza: erasoen aurkako protokoloa aktibatzea, biktima babestea, laguntzea eta jarraipena egitea.

Juridikoa: eskubideei buruzko informazioa ematea, babes-neurriak aktibatzea eta gorroto-delitua baloratzea.

*** Emakumea bikotekidearekin joaten bada, banakako elkarrizketa bermatu behar da. Genero barruko indarkeria kasuetan, baterako esku-hartzeak bertan behera utzi behar dira.*

Saihestu: identitatea edo testigantza zalantzan jartzea, ikusgarritasuna behartzea, galdera morbosoak edo intimitatea urratzen dutenak egitea, patologizatzea eta baimen informaturik gabe bideratzea.

◇ Prebentzioa eta jardunbide egokiak

Zeharkako printzipioak :

- Genero-ikuspegia, aniztasuna, intersekzionala eta indibidualizatua erabiltzea.
- Errespetua, autonomia, segurtasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea.
- Hizkuntza inklusiboa eta ez-estigmatizatzailea erabiltzea.
- Izena, izenordainak eta identitatea errespetatzea.
- Bigarren biktimizazioaren prebentzioa.
- Espazio segurua, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna.
- Langileen prestakuntza espezifikoa.

Jardunbide egokiak sektorearen arabera

Soziala: baliabide espezializatuak, laguntza eta koordinazioa LTBI+ erakundeekin.

Lanekoa: aniztasun-politikak, salaketa-bide seguruak eta errepresalien prebentzioa.

Osasunean: egokitutako formularioak, aurreiritzirik edo aurreikuspenik gabeko anamnesia eta patologizaziorik gabeko arreta.

Hezkuntza: curriculum inklusiboak, hezkuntza afektibo-sexuala, irakasle prestatuak eta ageriko protokoloak.

Juridikoa: gorroto-delitua eta genero barruko indarkeria ulertzea eta babes-neurriak hartzea.

LTBI+ emakumeen eskubideak babestea betebehar instituzionala da, eta oinarrizko baldintza da kalitatezko arreta profesionala bermatzea.

FELGTBI+

info@felgtb.org | +34 913 604 605
Chinchilla, 44. 1º Ext Izq. 28013 Madrid

MINISTERIO DE IGUALDAD
SECRETARÍA DE ESTADO DE IGUALDAD Y PARA LA ERRADICACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES
DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO